

Automatizazio eta Robotika Industrialeko Goi-Mailako Teknikaria



Tel.: 943 89 92 70

info@maltuna.eus

www.maltuna.eus

Automatizazio eta Robotika Industrialeko Goi-Mailako Teknikaria

FAMILIA: Elektrizitate eta Elektronika.

IKASTURTE KOPURUA: 2 ikasturte, goizez.

METODOLOGIA: Erronketan oinarritutako ikaskuntza kolaboratiboa.

ORDUAK GUZTIRA:

2.138 ORDU

(Ikastetxean eta enpresan).

SARTZEKO BALDINTZAK

- Batxilergoko titulua izatea.
- Lanbide Heziketako teknikari titulua edo Arte Aplikatuena eta Lanbide Artistikoen titulua izatea.
- Heziketa-zikloan sartutako 3. mailako C mailako prestakuntza-eskaintza gainditu izana.
- Hezkuntza-administrazioak baimendutako ikastetxe publiko edo pribatueta goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko prestatzeko berriarazko prestakuntza-ikastaroa gainditu izana.
- Goi-mailako heziketa-zikloetarako sarbide-proba gainditu izana, edo 25 urtetik gorakoak edo 45 urteko unibertsitatean sartzeko proba gainditu izana.
- Lanbide Heziketako Goi Mailako teknikari titulua edo Unibertsitate-titulu bat izatea.
- Uztailaren 18ko 659/2023 Errege Dekretuaren seigarren xedapen gehigarriaren 2. paragrafoan ezarritako goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko titulazio baliokideren bat izatea egiaztatzea.
- Atzerriko ikasketak lehenago zerrendatutako tituluren batekin homologatzeko egiaztatzea: homologatze-prozedura ebatzi gabe baldin badago, Baldintzapean lizena emateko Txartela onartuko da.

FORMAZIO-PLANA

LANBIDE MODULUA	ORDU-ESLEIPENA	KURTSOA
0959 Sistema elektrikoak, pneumatikoak eta hidraulikoak	165	1.a
0960 Sistema sekuentzial programagarriak	165	1.a
0961 Neurketa- eta erregulazio-sistemak	165	1.a
0962 Potentzia-sistemak	165	1.a
0964 Industria-informatika	99	1.a
1709 Enplegarritasunerako ibilbide pertsonala I	120	1.a
0558 Produkzio-sektoreei aplikatutako digitalizazioa	60	1.a
1708 Produkzio-sistemari aplikatutako iraunkortasuna	30	2.a
0963 Dokumentazio teknikoa	99	2.a
0965 Sistema programagarri aurreratuak	120	2.a
0966 Industria-robotika	133	2.a
0967 Komunikazio industrialak	140	2.a
0968 Automatizazio industrialeko sistemen integrazioa	140	2.a
1709 Enplegarritasunerako ibilbide pertsonala II	63	2.a
0179 Ingeles profesional	63	2.a
0969 Proiektu intermodularra	50	2.a
Hautazko modulua(k)	84	2.a
ZIKLOA GUZTIRA	2.138	

AUKERA BAT BAINO GEHIAGO

Erasmus+ programaren bidez praktikak atzerrian egiteko aukera.

Eleaniztasun aukera:

- Modulo batzuk ingelesez ikasteko aukera.
- Atzerrian praktikak egiterakoan lehenetsuna.
- Aukera aparta ingelera maila hobetzeko eta aldi berean kurrikuluma aberasteko.

LH DUALa aukera:

Ikasleek ikastetxeko eta enpresako formazioa bateratzen dituzten LH modalitatea.

FORMAZIO OSAGARRIA

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ondorengo formazio osagarria jasotzeko aukera izango du Miguel Altuna Lanbide Heziketan:

- Orga jasotzaileen erabilera.
- Laneko arriskuen prebentzioko oinarriko jarduerak gauzatzeko beharrezko ezagupenak.
- Zubi-garabien erabilera.
- Ingeleseko errefortzu klaseak.
- Errefortzu klaseak.

ZER IKASIKO DUT? ZER EGINGO DUT?

Profesional hau gai izango da:

- Instalazio eta sistema automatikoak arauzko zehaztapenen eta jarraibideen arabera konfiguratzeko.
- Instalazio automatikoan beharrezkoak diren kableatu eta interkonexioko tresneriak eta elementuak hautatzeko, zehaztapenei eta arauzko aginduei jarraituta.
- Kontrol-programak lantzeko, zehaztapenen arabera eta instalazioaren ezaugarri funtzionalen arabera.
- Tresneria konfiguratzeko eta, horretarako, komunikazio-sareak kontrolatzeko eta kudeatzeko programak garatzea, industria-automatizazioko sistemetako bus estandarren bitartez.
- Instalazio eta sistema automatikoetako planoak eta eskemak lantzeko, betiere tresnerien ezaugarriak eta instalazioaren ezaugarri funtzionalak kontuan izanik, eta lagundutako diseinuko informatika-tresnak erabilia.

- Zehaztapenak abiapuntu izanik, instalazio automatikoak abian jartzeko muntaiaren protokoloa, probak eta jarraibideak definitzeko.
- Instalazioa dokumentazio teknikoaren arabera zuinkatzeko, bere eskumeneko arazoak konponduz eta beste kontingentzia batzuen berri emanez, muntatze-lanen bideragarritasuna ziurtatzeko.
- Sistema automatikoetan instalazio elektriko eta elektronikoekin, kontrolekoekin eta komunikazio-azpiegiturekin lotzen diren tresnak eta elementuak gainbegiratzeko eta/edo muntatzeko.
- Instalazioak eta tresneria gainbegiratzeko eta/edo mantentzeko, eta, horretarako, egiaztapen-eragiketak egiteko, matxurak aurkitzeko, doitzeko eta elementuak ordeztzeko, funtzionamendua berrezartzeko.

NIRE IKASKETAK AMAITZEAN, ZER EGIN DEZAKET?

Heziketa ziklo honetan matrikulaturik dagoen ikasleak, ikasten jarraitzeko edo zuzenean lan-mundura zuzentzeko aukera izango du:

1 IKASKETA HAUEKIN JARRAI dezakezu:

- Lanbide-espezializazioko programekin.
- Goi-Mailako Lanbide-Heziketako beste ziklo batekin, indarrean dagoen araudiaren araberako lanbide-moduluen arteko baliozkotzeak ezarrita.
- Unibertsitate-ikasketekin, indarrean dagoen araudiaren araberako baliozkotzeak ezarrita.

2 LAN IRTENBIDE hauek izan ditzakezu:

- Automatizazio industrialeko sistemak muntatzeko eta mantentzeko lanak gainbegiratzen dituen taldeko burua.
- Aparatu, koadro eta tresneria elektronikoen egiaztatzailea.
- Lantegi elektromekanikako taldeko burua.
- Automatizazio industrialeko sistemak mantentzeko lanen antolamenduko teknikaria.
- Automatizazio industrialeko sistemak abian jartzeko teknikaria.
- Automatizazio industrialeko sistemetako kontrol-sistemen proiektugilea.
- Automatizazio industrialeko sistemetako neurketa- eta erregulazio-sistemen proiektugilea.
- Automatizazio industrialeko sistemetan, komunikazio-sareen proiektugilea.
- Robot industrialen programatzaile kontrolatzailea.
- Kontrol elektrikoko sistemen diseinuko teknikaria.
- Automatizazio industrialean integratutako zirkuituen eta sistemen diseinatzailea.



“D ereduan matrikulatutako ikasleek, behin heziketa-zikloa amaituta, Euskararen Goi Maila (B2) titulua lortzen dute.”

Informazio gehiago:

www.maltuna.eus